# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA ETA OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2765

209/90 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, osasunbiderako toki-zerbitzuko funtzionari teknikoak, beren zerbitzuak Osakidetzarentzat betetzen ari diren mediku, praktikante eta emaginen kidegoei adskribaturiko oinarrizko sorospidetzako ekipoetan integratzea araupetzeko dena.

Osakidetza Erakunde Autonomoaren sendaketa, sustaketa, prebentzio eta bereoneratze zerbitzuak antolatzeko eta administratzeko ahalmena ematen dio Osasun eta Kontsumo Sailari Osakidetzari buruzko maiatzaren 19ko 10/83 Legearen 3.2 atalak.

Eskuduntza horretaz baliatzeak, osasun egituren ikusmolde integral baten pean egon behar du eta ikusmolde hori dela bide, batetik, egitura horien giza eta materialezko baliabide guztiak antolakunde bakar batean bateratu daitezela komeni da eta, bestetik, osatze eta bereoneratze iharduketak eta prebentziozkoak eta sustapenekoak ere bertan sar daitezela.

Eskuduntza horretaz baliatzea, nahitaez, oinarrizko sorospidetzako zerbitzuen antolaketari dagozkion araugintzazko xedapenen barruan sartu beharko da eta profesional batzu gure gizarteko baldintzei egokitzearen barruan, horientzat, beren lanbide iharduketaren baldintzetan eraginik izan duten aldaketak, beren iharduketaren esparrutzat daukaten arauterian ez bait dira agertu. Desfase horiek zuzentzera dator Dekretu hau eta herritarren eta profesionalen beharrak eta eskaerak gaurko egunari egokitzera eta profesional horiek beren iharduketa gauzatzen ari direneko baldintzak ere.

Osasun eremuak sortzeko mediku eremu batzu batzea gerta dadin kasutan, tokiko osasunbide-funtzionariak, borondatezko eskaintza baten bidez oinarrizko sorospidetzako ekipoetan sartzea aipatzen zuen Urtarrilaren 11ko 137/84 Errege Dekretuaren Aldibaterako Laugarren Xedapenak. Bateratze horiek egin dira jadanik gure Autonomi Elkartearen eremuan.

Aldibaterako ordainketa erregimena berariz araupetuz, integrazio hori burutzen den bitartean, antzeko integrazio bati ekiteko legegintza-asmoa dauka uztailaren 6ko 6/89 Legearen Hamabigarren Xedapen Gehigarriak. Hori dela bide eta aurrikuspen horiekin bat eginik eta lehen aipatutako 6/89 Legearen 5.a) atalak Eusko Jaurlaritzari eman dion ahalmena erabiliz, Dekretu honen bidez oinarrizko sorospidetzako ekipoetan sartzeko borondatezko eskaintza gauzatzeari ekiten zaio.

Esandako guzti horrengatik, Aholku Batzorde Teknikoei, Medikuen, Osasunbideko Laguntzaile Teknikoen eta Enfermeritzako Unibertsitate-Diplomatuen Elkarteei eta alor horretako Sindikatu Antolakundeei hitz aukera eman ondoren, uztailaren 6ko 6/89 Legearen 5.a) atalaren, 12.3, xedapen Gehigarriaren, Azken

## DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO Y SANIDAD Y CONSUMO

2765

DECRETO 209/90 de 30 de julio, por el que se regula la integración en los equipos de atención primaria de los funcionarios técnicos al servicio de la sanidad local, adscritos a los cuerpos de médicos, practicantes y matronas, que presten sus servicios para el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

El artículo 3.2 de la Ley 10/83, de 19 de Mayo, del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, atribuye al Departamento de Sanidad y Consumo la competencia para organizar y administrar los servicios curativos, de promoción, prevención y rehabilitación del Organismo Autónomo.

El ejercicio de tal competencia ha de venir presidido por una concepción integral de las estructuras de salud, en virtud de la cual, por una parte, se integren en una única organización todos los medios personales y materiales de aquéllas y, por otra, se comprendan en la misma tanto las actividades de curación y rehabilitación, como las de prevención de la enfermedad y promoción de la salud.

El ejercicio de esta competencia ha de incardinarse necesariamente dentro de las disposiciones normativas que afectan a la ordenación de los servicios de atención primaria y la de atender a la adecuación a las condiciones de nuestra sociedad, de unos profesionales, para los cuales las transformaciones que han afectado a las condiciones de su ejercicio profesional no se han visto reflejadas en la normativa que sirve de marco a su actuación. El presente Decreto viene a corregir este desfase y adaptar a los tiempos modernos, las necesidades y demandas de la población y de los propios profesionales las condiciones en las que estos ejercen su actividad.

La Disposición Transitoria Cuarta del Real Decreto 137/84, de 11 de Enero, contemplaba la integración de los funcionarios sanitarios locales en los equipos de atención primaria mediante una oferta voluntaria cuando hubiese sido preciso agrupar varios partidos médicos para la creación de las zonas de salud. Tales agrupaciones han sido realizadas en el ámbito de nuestra Comunidad Autónoma.

La Disposición Adicional Duodécima de la Ley 6/89, de 6 de Julio, contiene la voluntad legislativa de proceder a una integración similar, regulando expresamente el régimen retributivo transitorio en tanto ésta se lleve a cabo. Por ello y en consonancia con tales previsiones, haciendo uso de la potestad reglamentaria conferida al Gobierno Vasco por el artículo 5.a) de la Ley 6/89, ya citada se procede a realizar mediante el presente Decreto la oferta voluntaria de integración en los equipos de atención primaria.

Por todo lo expuesto, oídas las Comisiones Asesoras Técnicas, los Colegios Profesionales de Médicos y Ayudantes Técnico-Sanitarios, Diplomados Universitarios en Enfermería y las Organizaciones Sindicales del sector, al amparo del artículo 5.a), Disposición Adicional 12.ª 3, Disposición Final Primera de la Ley

Xedapenetako Lehenengoaren eta Osakidetzari buruzko maiatzaren 19ko 9/83 Legearen 3.2.a) atalaren babespean, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren eta Osasun eta Kontsumo Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1990eko uztailaren 30ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren hau,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Toki mailako Osasunbidearen zerbitzura dauden Funtzionari Teknikoak Euskal Autonomi Elkarteari transferitutako Mediku, Praktikante eta Emaginen Kidegoei adskribaturik dauden Oinarrizko Sorosketarako Ekipoei dagokien egituran integratzea eta horien arauketa juridikoa, Dekretu honetan xedatutakoaren pean geldituko dira.

*2. atala.*– 1. Titularitatez eta behin-betiko destinoz betetzen dueneko lanpostuari dagokion Oinarrizko Sorosketako Ekipoen egituran eta erregimen juridikoan borondatez sartzea eskainiko dio Osakidetzak 1. atalean aipatutako langilegoari.

2. Inkorporazioko eskaintza hori progresiboki gauzatuko da, Osakidetzari adskribatutako Medikuen, Praktikanteen eta Emaginen Kidegoen toki mailako osasunbide-langilegoaren barruko toki-aldaketarako lehiaketa bat egin ondoren, aipatutako lehiaketa horren Erabakitik aurrerako hiru urteko gehienerako epe baten barruan, osasunbide-sorosketako zerbitzuak berrantolatzen doazen heinean eta batez ere egituran integratzeko aldezko borondateari begiratuz eta horren eraginpeko langilegoak erakus dezan Oinarrizko Sorosketako Ekipoen erregimen juridikoari, halaber, alde bakoitzak dituen giza eta ekonomi baliabideen beharrei eta zerbitzu horiek adskribaturik daudeneko biztanlegoari eta Herrialdeko osasunbide-beharrei ahalik eta gehien egokitzeari.

3. Aipatutako erizpide horien arabera egindako integrazio eskaintza bat ukatzen badu bere destinatarioak, errepikatu ahal izango da hori eta, hala gertatuz gero, hirugarren aldiz ere bai, Xedapen honetako lehen apartaduak dioen hiru urteko epea amaitu arte.

4. Aurreko apartaduan xedatutakoa horrela izanik ere, aurrekontuetatik atera gabe, interesatuek edozein unetan aurkeztutako integrazio-eskabide guztiak onartu egingo ditu Osakidetzak.

*3. atala.*– Dekretu honek dioen langilegoa Oinarrizko Sorosketako Ekipo batean integratzeak, bere lanpostuaren eraldaketa dakar eta, postu horrek, aurrerantzean, ondorio guztietarako, Ekipoko lanpostuaren izaera izango du eta, halaber, lanpostu horri atxikirik dauden sorosketa hori jasotzeko eskubidea dutenen kupoa ere bertan integraturik geldituko da behin-betirako.

*4. atala.*– 1. Plaza baten horrela egindako aldaketak, Oinarrizko Sorosketako Ekipoetan indarrean dauden lan baldintzak horren titularrari atxikitzea ekarriko du eta horietarako egin daitezen toki aldaketarako deietan parte hartzeko eskubidea ere emango dio.

2. Halaber, Ekipoetako bere homonimo den langilegoari ordaintzen zaizkion lan ordainketen parekoak, urteko bere kopuruan, hartzeko eskubidea izango du

6/89, de 6 de Julio, y artículo 3.2.a) de la Ley 9/83, de 19 de Mayo, del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, a propuesta de los Consejeros de los Departamentos de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico y de Sanidad y Consumo previa deliberación y aprobación en Consejo de Gobierno en su reunión de 30 de julio de 1990,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– La integración en la estructura y regulación jurídica correspondiente a los Equipos de Atención Primaria de los Funcionarios Técnicos al servicio de la Sanidad Local, adscritos a los Cuerpos de Médicos, Practicantes y Matronas, transferidos a la Comunidad Autónoma del País Vasco, se sujetará a lo dispuesto en el presente Decreto.

*Artículo 2.*– 1. Por la Dirección General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza se ofertará al personal al que se refiere el artículo 1 su integración voluntaria en la estructura y el régimen jurídico de los Equipos de Atención Primaria correspondiente a la plaza cuya titularidad ostente y en la que ocupe destino definitivo.

2. Dicha oferta de incorporación se efectuará de manera progresiva, con posterioridad a la celebración de un concurso de traslados entre el personal sanitario local de los Cuerpos de Médicos, Practicantes y Matronas adscrito al Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, en el plazo máximo de tres años a partir de la Resolución del citado concurso, a medida que se vayan reorganizando los servicios de asistencia sanitaria, atendiendo preferentemente a la voluntad favorable a la integración en la estructura y el régimen jurídico de los Equipos de Atención Primaria que manifieste el personal afectado, así como a las necesidades de recursos humanos y económicos de cada zona y a la mayor adecuación posible de dichos servicios a la población adscrita y a las necesidades sanitarias del Area.

3. Si una oferta de integración, efectuada con arreglo a los criterios citados, fuera rechazada por su destinatario, podrá reiterarse por segunda y, en su caso, tercera vez, hasta el cumplimiento del plazo de tres años a que se refiere el párrafo primero de esta Disposición.

4. Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza aceptará, dentro de los límites presupuestarios, cuantas solicitudes de integración le sean presentadas por los interesados en cualquier tiempo.

*Artículo 3.*– La integración del personal al que se refiere este Decreto en un Equipo de Atención Primaria supondrá la transformación de su plaza, la cual pasará a tener, a todos los efectos, la consideración de plaza de Equipo, integrándose, asimismo y de manera definitiva, el cupo de titulares del derecho a la asistencia sanitaria que correspondieran a la misma.

*Artículo 4.*– 1. La transformación de una plaza así efectuada supondrá la aplicación a su titular de las condiciones de trabajo vigentes en los Equipos de Atención Primaria, incluido el derecho a participar en los concursos de traslado que para éstos se convoquen.

2. Asimismo, tendrá derecho a percibir unas retribuciones equivalentes, en su cuantía anual, a las devengadas por el personal homónimo de los Equi-

eta hori, funtzionari bezala dagokion giza-prebisiorako erregimenaren kaltetan izan gabe.

Dedikazio esklusiboko osagarri berezia jasotzea, langilego horrentzat, borondatezkoa izango da eta aukera era horretan egin denean bakarrik emango da hori.

3. Nolanahi ere, era horretan Oinarrizko Sorosketako Ekipoetan lanpostuak betetzera sartzen diren funtzionari interinoek eta karrerakoek, beren funtzionari-estatus juridikoa gordetzen jarraituko dute eta horri dagozkion eskubideak edukiz.

*5. atala.*— 1. Oinarrizko Egiturei buruzko urtarrilaren 11ko 137/84 Errege Dekretuaren 5.1.h) atalean xedatutako ondorioetarako, toki mailako osasunbide-funtzionariak Oinarrizko Sorosketa Ekipoetako egitura eta erregimenera sartzen doazen heinean, ekipo horiei dagokie funtzionari haien egitekoak betetzea eta bereziki hauek:

a) Informatu eta beren eskuduntzaren egitekoak garatzean Toki Korporazioek eska dezaten laguntza teknikoa eman.
b) Osasunbide-ikuskaritzari dagozkion iharduketak bete.
c) Heriotzetako osasunbide-poliziaren egitekoak betetzea.
d) Justizi Administrazioak eskatzen dituen laguntza eta kooperazioa eman.
e) Eskola Osasuneko lanak bete.
f) Kintoen errekonozimendua egitea.
g) Eskatzen zaion osasunbidezko eta administrazio teknikoko informaketa eta agiriak betetzea eta osasunbide agintariei bidaltzea.

2. Mediku Koordinatzailearen gainikuskatzez, Ekipoko kide guztiek beteko dituzte egiteko horiek, izan dezaten estatutozko edo funtzionaritzako izaera kontutan hartu gabe eta, kide horiek, Osasunbideari buruzko 14/1986 Lege Orokorraren 42. atalean xedatutakoaren ondorioetarako bakarrik, Udalei laguntzeko lanetan dihardutenean, udal horien zerbitzuko langilegoaren kontsiderazioa izango dute.

*6. atala.*— Oinarrizko Sorosketako Ekipo bateko egitura eta erregimen juridikora sartzea eskaini zaionean, hori ez onartzea aukeratu duen funtzionariak, bai sorosketa lanak eta betetzen ari den toki-mailako osasunbide plazari atxikita daudenak ere betetzen jarraituko du eta, osasunbide-profesionalen multzoaren iharduketa armonizatua izan dadin, dagokion Oinarrizko Sorosketako Ekipoko Koordinatzaileak ezar ditzan antolaketa erizpideei luturik.

*7. atala.*— 1. Dekretu honen indarrartze egunean hutsik dauden plazak, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren Erabaki baten bidez, Oinarrizko Sorosketako Ekipo bati adskribaturik geldituko dira.

2. Integrazio eskaintza ukatu duen titularrarena izan eta geroztik, toki-aldaketa, jubilazioa, heriotza edo indarrean dagoen legeriak adierazitako beste edozein arrazoiren batengatik hutsik gelditu diren lanpostuetan ere erabiliko da agindu hau.

pos, sin perjuicio del mantenimiento del régimen de previsión social que, como funcionario, le corresponda.

La percepción del complemento específico de dedicación exclusiva tendrá, para este personal, carácter voluntario, devengándose únicamente cuando la opción sea efectuada en tal sentido.

3. En todo caso, los funcionarios interinos y de carrera que, de esta forma, pasen a ocupar plazas en los Equipos de Atención Primaria seguirán manteniendo su estatus jurídico funcionarial y ostentando los derechos correspondientes al mismo.

*Artículo 5.*— 1. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 5.1.h) del Real Decreto 137/84, de 11 de Enero, sobre Estructuras Básicas de Salud, a medida que los funcionarios sanitarios locales se incorporen a la estructura y régimen jurídico de los Equipos de Atención Primaria, se entenderá que corresponde a éstos el ejercicio de sus funciones y especialmente las siguientes:

a) Informar y prestar el apoyo técnico que soliciten las Corporaciones Locales en desarrollo de las funciones de su competencia.
b) Realizar actividades propias de inspección sanitaria.
c) Cumplir las funciones de policía sanitaria mortuoria.
d) Prestar el auxilio y la cooperación que solicite la Administración de Justicia.
e) Efectuar tareas de Salud Escolar.
f) Practicar el reconocimiento de quintos.
g) Cumplimentar y enviar a las autoridades sanitarias cuanta información y documentación de carácter sanitario y técnico-administrativo le sea requerido.

2. Estos cometidos serán desempeñados, bajo la supervisión del Coordinador Médico, por todos los miembros del Equipo, independientemente del carácter estatutario o funcionarial que ostenten, los cuales, en el ejercicio de las tareas de apoyo a los Ayuntamientos, tendrán la consideración de personal al servicio de los mismos, a los solos efectos de lo dispuesto en el artículo 42 de la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad.

*Artículo 6.*— El funcionario que, al serle ofertada su integración en la estructura y régimen jurídico de un Equipo de Atención Primaria, opte por no aceptarla, continuará desempeñando tanto las funciones asistenciales como las inherentes a la plaza de sanitario local que ocupe, con sujeción a los criterios organizativos que establezca el Coordinador del Equipo de Atención Primaria correspondiente, con objeto de armonizar la actividad del conjunto de los profesionales sanitarios.

*Artículo 7.*— 1. Las plazas que estén vacantes a la entrada en vigor del presente Decreto quedarán adscritas a un Equipo de Atención Primaria, mediante Resolución del Director General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

2. Este precepto será asimismo aplicable a las plazas que, con posterioridad a una oferta de integración que haya sido rechazada por su titular, queden vacantes como consecuencia del traslado, jubilación o fallecimiento de éste o por cualquier otra causa contemplada en la legislación vigente.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Oinarrizko Sorosketako Ekipo baten egitura eta erregimen juridikoan integratuta izan delako, azkeneko hamabi hilabeteetan hartu duen batez-besteko guztirakoa begiratuta, bere ordainsarietan beherapen bat jasan duen langilegoak, bere lanpostuari gehitu zaizkion beste plazek eman dutena salbu, aldeagatik, osagarri pertsonal baterako eskubidea izango du eta alde hori, une bakoitzean indarrean dauden Xedapen eta Akordioak erabiltzetik atera dadin erizpideen arabera bakarrik absorbituko da.

*Bigarrena.*— 7. atalean ezarritakoaren ondorioz, dagokion Oinarrizko Sorosketako Ekipoan zerbitzuak betetzera joan daitezen enplegu interinoa duten funtzionariek, betetzen ari ziren lanpostuak, eduki zeukaten beren interinotasun izaeraz, betetzen jarraituko dute lanpostu horiek arauz betetzen diren arte.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Dekretu honetan adierazitakoa betearazteko bidezko diren arauak jartzeko baimena ematen zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiari

*Bigarrena.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian hau argitaratzen deneko egunaren biharamunean hartuko du indarra Xedapen honek.

Gasteiz, 1990.eko uztailak 30.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Zuzentza
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

Osasun eta Kontsumo Sailburua,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*— El personal que, como consecuencia de su integración en la estructura y régimen jurídico de un Equipo de Atención Primaria, experimente una disminución en sus retribuciones, en relación con el importe medio total que hubiera percibido en los últimos doce meses, con excepción de las cantidades que, en su caso, hubiera devengado por el desempeño de otras plazas acumuladas a la suya, tendrá derecho a un complemento personal por la diferencia, que sólo será absorbido según los criterios que resulten por aplicación de las Disposiciones o Acuerdos vigentes en cada momento.

*Segunda.*— Los funcionarios de empleo interino que, como consecuencia de lo establecido en el artículo 7, pasen a prestar servicios en el correspondiente Equipo de Atención Primaria continuarán, con el mismo carácter de interinidad, en el desempeño de las plazas que vinieran ocupando, hasta su cobertura reglamentaria.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se autoriza al Director General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza para que dicte las normas oportunas para la ejecución de lo previsto en el presente Decreto

*Segunda.*— La presente Disposición entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de julio de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO

El Consejero de Presidencia, Justicia
y Desarrollo Autonómico,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

## INDUSTRIA ETA MERKATARITZA SAILA

**2766**

**AGINDUA, 1990.eko irailaren 14ekoa, Industria eta Merkataritza Sailburuarena, Kogenerazio Plantetan lortzen diren atarramenduen kontrolari buruzkoa dena.**

Energiaren iraunerazpenari buruzko abenduaren 30eko 82/1980 Legeak, energiaren ustiakuntza hobea bultzatzeko emana izan zenak, kogenerazio sistemak sustatzen ditu, besteak beste.

Elektra energiaren autogenerazioa sustatzeari buruzko apirilaren 2ko 907/1982 Errege Dekretuak, autogeneratzaileek Elektra Enpresekin dituzten harremanak inguru baten sartzen ditu eta elektra energia emateko baldintzak jartzen ditu.

Bestalde, 1982.eko uztailaren 7ko Aginduak elektra autogeneratzaile izaera lortzeko arauak jartzen ditu.

Ez 82/1980 Legean, ez hori garatzen duten xedapenetan ere, ez da ikusten ustiakuntza aldian kogene-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y COMERCIO

**2766**

**ORDEN de 14 de septiembre de 1990, del Consejero de Industria y Comercio, sobre control de rendimientos en las Plantas de Cogeneración.**

La Ley 82/80, de 30 de Diciembre, sobre conservación de la Energía, promulgada con el objeto de promover un mejor aprovechamiento de la misma, fomenta, entre otros, los sistemas de cogeneración.

El Real Decreto 907/82, de 2 de Abril, sobre fomento de la autogeneración de energía eléctrica, enmarca las relaciones de los autogeneradores con las Empresas Eléctricas y establece las condiciones de entrega de la energía eléctrica.

Por su parte, la Orden de 7 de Julio de 1982 establece las normas para obtener la condición de autogenerador eléctrico.

Se observa que, ni en la Ley 82/80, ni en sus disposiciones de desarrollo, se contempla el procedi-